

Ez gaituzte ulertzen

Deia, 1983-06-10.

Izenburu honekin, "No nos entienden", argitaratu du Fernando Savater idazleak *El País* egunkarian aipamena eta irazkina ere merezi duen artikulua.

Esaten du egia franko.

Egia, denok dakigunez, milaka aurpegiko irudia da; euskarak ba du hau adierazteko esaera argi bat: "Buru bezanbat aburu". Fernando Savater-ek, buruz argia denez, esaten ditu argiak diren bereak, eta, bestalde, izpirituz lokabe denez, interesgarriak aipatzen dituen bi muturretako euskaldun eta espainolentzat.

1. Euskaldunak kexa gara beti: "ez gaituzte ulertzen"; harritzen da Savater inguratzen gaituztenak hain kamuts izateak, edota gu hain misteriotsuak.

2. Savaterren susmoa: "ez gaituzte ulertzen" esaten dugunean "ez didate nik dudan arrazoirik aitortzen" pentsatzen ote dugun; edota beste hau: euskaldunen artean elkar ez ulertzearen ondorio sinplea besterik ez ote den.

3. Ba da Euskalerrian arrazoirik espainolek gure arazoetan erakusten duten sensibilitate ezaz kexatzeko: eskuin-ezkerreko espainolak nozitu dituzte betiko zentralismo patrioteroz apainduta: "hábleme en cristiano" dariotela, berea ez den abertzaletasun guztiak irrazional eta antihistoriko bezala salatuz; espainolek onartu ezin dutena zera da, euskotarren abertzaletasuna ez dela gutxi batzuen nahikeri zentzugabea, eta ezta orain jakobino berriei hainbeste gustatzen zaizkien gezurrezko *autonomia* berri horietakoa; aitzitik, historia luzea eta egiazko sustraiak dituen, eta herriaren marjinazio luzeak ongarriztatu eta gero atzera ezinezkoa den nazionalitatearen sentipena.

Honeraino, dio Fernando Savaterrek, euskotarren arazoa uler erraza da.

Baina ba dira ezinak diren batzu ere.

4. Ez da ulergarri eta ez garbi, haurdunari lau tiro jotzea, edo Euskalerraren izenean zauritua dagoen bati hotzean akabatzea.

5. Honetan, okerrena zera da, "ezker politikoa" dena beste zerbaitez nahasten dela; honen ezaugarri ez baita maximalismo iluminatua, justiziaren arrazoibidea baino. Hitz batetan: ulertzen ez dena, eta ulergaitza ere dena, borroka armatuaren luzapena da.

"Buru bezanbat aburu", dio gure esaera zaharrak.

Hoiek dira Fernando Savaterrek artikulua honetan erakusten dituen puntu nagusienak; berea den ikuspuntutik ikusiak, noski. Ez gara denok eta denez bat etorriko; iritzi batzu irazkin luzeak ere merezi dituzkete; baina, dena dela, hango eta hemengo, ba dago hemen denontzat zer pentsa.